

...eta **kitto!**

704 zkia. 2009-XII-30 ASTEKARIA

Barruan
URTEKARIA
2009hilezhile

Urko Berri ON

**Zure etxe-barruaren
onerako...**

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
Faxa. 943 20 01 05
egolan.eibar@terra.es

AHOLKULARITZA eta GESTIOA


EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7-C




ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA
OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

CRF AMOSTEGI



- * *Fisioterapia*
- * *Logopedia*
- * *Kirol medikuntza*
- * *Osteopatia*
- * *Perineologia*
- * *Ama izateko prestakuntza*



R.P.S. 28/07

Muzategi, 2 behea (EIBAR) Tfnoa eta Faxa. 943 20 34 46

E-maila: info@crf-amostegi.com - www.crf-amostegi.com



ALBIDE
GREMIOEN KOORDINAKETA

www.casanella.com
Juan Gisasola, 16 - behea

CASANELLA



ERREFORMAK
•
PROIEKTUAK
•
SUKALDEAK
•
BAINUAK
•
ALTZARIAK
•
DEKORAZIOA



Tel.
943 20 04 43
Faxa.
943 20 14 11



EUSKARA ELKARTEA

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Eibarko Klub Deportiboa

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

FILA EGIN.- Ixilean, ezkutuan ihes egin. "Iñork kontuan jausi baiño lehen fila egiñ eban".

FIRIN DA FARAN / FIRI(N)-FARAN.- Zeregin ezean ibili. Alperkerian ibili. "Firi-faran dabil gauza onik egin barik". "Bihar barik dagoenetik firin da faran dabil egun guztian".

FIXT.- Bapateko ihesaren onomatopeia. "Jabia tabernan sartu zanian, txakurrak fixt! ospa egiñ etsan".

ESKUTITZAK

URTE BERRI ON IRAKURLE GUZTIONTZAKO

Eskuarterean duzuen 2009ko azken alea da, urteari erreposoa ematen diona batez ere. **Hurrengo alea**, ohikoa denez, **urtarrilaren 15ean** kaleratuko da eta bihar egingo den XV. Eibarko Kirol Sarien ekitaldia izango du protagonista nagusizat, kirolak urtean eman duen guztiarekin batera.

Bestalde, gonbidatuta zaudete bihar 12.00etan Por-

talean urtea amaitzeko egingo den aipaturako ekitaldira. Horrez gain, urtea bikain hasteko ez dago Urkora igotzea modukorik; Ixuan, gainera, **10.00etatik aurrera hamarretakoa** izango duzue zain doan. Hori antolatzen duten Eibarko Klub Deportiboa eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen partez, Urte Berri On guztioi.

ERREDAKZIOA



asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Bolsa eta ekonomiaren artean dagoen korrelazioa zerotik ez da pasatzen; hau da, ez dago korrelaziorik. Ekonomia errealean eskaera igotzen denean, prezioak ez dira berehala igotzen. Diru ekonomian, bestalde, eskaintzaren kurba bertikala da, akzio, etxebizitza edo lehengai stock-ak finkoak direlako; horregatik, hemengo eskaera igoerekin, prezioen igoera paraleloak datoz"


(Paul Marson, Lombard Odier-eko inbertsio zuzendaria)

"Estatu propiorik gabeko kultura bat birtuala da ia berez, definizioz. Kultura hori bultzatuko duen estaturik gabe, kolektibo birtual bat izango balitz duen estaturik funtzionatzera dago derrigortuta eta hori gertatzen da Katalunian, prozesu historiko antzerakoan dauden beste kasuetara estropolatu daitekeena. Irakurle birtualen belaunaldia agertuko da hemendik gutxira"

(Andreu Carranza, idazlea)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Olentzero joan zaigu

JOAN DA OLENTZERO, bueltatu da berriro ere Urkoko bordara datorren urteko Gabonetara arte, baina aurretik Eibarren izan zen abenduaren 24ean umeak agurtzen eta herriko etxeetan opariak banatzen. Urtero bezala, Olentzerok kalejira egin zuen herriko kaleetan zehar Musika Eskolako soinu ikasle eta trikitilariekin, eta herritar guztiek ikusi ahal izan zuten opariak banatzen dituen bizarduna.

Kaleetan zehar ibili eta gauean opariak banatu aurretik, hala ere, Udaletxean izan zen aurreko egunetan Portalea eta Pegoran berarentzat eskutitzak idatzi zituzten umei opariak banatzen. Eskuzabaltasun handia erakutsi zuen Olentzerok eta herriko umeak datorren urtea heltzeko irrikitan daude berriz ere ikusteko.



Inoiz baino jende gehiago Abontzatomasetan

ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUTEN Abontzatomasek joan den asteburuan. Eguraldiak lagunduta, Abontzako plaza jendez bete zen eta antolatzaileen berbetan, *“sald a beroak eta txistorrak lagunduta goiz eder eta alaia pasa zuen jendeak”*.

Aurten ere txistorra salmentaren marka hautsi zen, izan ere, azken orduan txistorra pintxo guztiak saldu ziren. Saldari dagokionean aurten gehiago prestatu zen, *“hotzaren beldur, baina hori ere ia amaitu*



zen”. Umeek euren jolasekin plaza girotu zuten eta Baqué kafe etxearen eskutik otar bi banatu ziren. Lehena Olga Arranzek eraman zuen 0154 zenbakiarekin, eta bigarrena 6111 zenbakiarentzat izan zen.

Zilarrezko Q-a La Salle Azitaintzat

EUSKO JAURLARITZAK Zilarrezko Q-arekin saritu du La Salle Azitain. Xabier Cendoya zuzendariak aipatu duenez, *“sari honek Europako EFQM kudeaketa ereduan sartuta gaudela eta ikastetxeko esparru*



guztietan etengabeko hobekuntza bultzatzen dugula ziurtatzen du”. Barakaldoko BECen jaso zuen saria duela aste bi La Salle Azitainek.

Zilarrezko Q-a jasotzeak, gainera, La Salle Ikastetxeko Misioa aurrera eramatera eta hezkuntza lanean jardutera animatzen dituela aitortzen du Cendoyak. Era berean, guzti hau lortzen lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie zuzendariak.

Foto

Depilazioa

3 Hiru Biren prezioan
Urtarrilaren 15era arte **2**

Gainera...

- **Aurpegi eta Gorputz Tratamenduak**
- **Masaje Terapeutikoa**
- **Mikropigmentazioa**
- **Drenaje Linfatikoa: VODDER metodoa**

Azkenean amaitu da ilearen arazoa

**ARRATE
GARATE**
ESTETIKA ETA
MASAJE ZENTROA

Arragueta, 2 - bis B, solairuartera A
Tel. 943 25 40 77

Gabonetako V. Artisau Azoka martxan

GABONETAKO IKURRETAKO BAT bihurtzen ari da Eibarko Bizikleta Plazan kokatuta dagoen Artisau Azoka. Aurtengoa 5. edizioa da ekintza hau antolatzen dena eta urtero-urtero arrakasta handiagoa izaten du. Hilaren 18an ireki zituen atean azokak eta urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik egunero 11.00-etatik 14.00etara eta 17.00-etatik 21.00etara.


Estatu osoan etorritako 14 artisauen lanak egongo dira bertan eskuragarri, horien artean zortzi eibartar. Besteak beste burdina, esmalteak, beira, arropak... aurki daitezke. Postuez gain, bestetik, hainbat tailer eskaintzen dira azokan. Horrela, hilaren 20an gabonetako arbolak apaintzeko apaingarriak egin ziren eta joan den domekan koloretako gatzpoteak.



Barrakak neguan ere

EIBARREK UDABERRI ETA UDA aldean hartzen ditu barrakak batez ere, Letras Galegas jaietan, Sanjuanetan edo Amañako jaietan. Aurtent, Gabonetara begira Eibar Merkataritza Gune Irekiak barrakak gaineko apustua egin du, eta abenduaren 19an zabaldu zirenetik arrakasta handia izan dute ume eta nagusien artean.

Hilaren 6ra arte egongo dira zabalik, eta atrakzioen artean Dragoia, La Olla eta auto-txokeak aurki daitezke, besteak beste. Horietan ibiltzeko hainbat egunetan doan egin daiteke (urtarrilaren 2, 4, 5 eta 7an) eta beste egunetan 1,5 euro ordaindu beharko da (abenduaren 31 eta urtarrilaren 1, 3, 6, 8, 9 eta 10ean).



...eta kitto!-ko otarra jaso du irabazleak

GABONETARAKO SASOIZ JASO du produktu goxoz betetako otarra ...eta kitto! Euskara Elkarrearen zozketako irabazleak: Mari Karmen Olaizola Gallastegi, Soraluzen bizi den eibartarra izan da aurtengo otarra etxera eramateko zortea izan duena, duela aste bi egindako zozketan irten zen 604 zenbakidun txartela berak zuen eta. Zorionak eta on egin deizuela!

Arregi - Dominguez ARRAINDEGIA



Zorionak

Urte Berri On

Rialtoko Merkatu Plaza

943 20 32 09

Mariskoak

Arrain freskoa eta izoztua

Enkarguak hartzen ditugu

Ondarruko arraina



Bidebarrieta, 4

943 20 11 38

GUALak ireki ditu atepak

GUA I GABONETAKO HAUR PARKEAK abenduaren 26an ireki zituen atepak Armeria Eskolan. Hasierako egunetan haur asko hurbildu da bertara, eta GUAlean eskaintzen diren atrakzio eta tailer ezberdinez gozatzeko aukera izan dute. Besteak beste, zezen-mekanikoa, puzgarria, ohe elastikoak, txikien tailerra, eskulanak, makillajea eta gozogintza.



Urtarrilaren 4ean itxiko ditu atepak parkeak, eta egunero 11.00etatik 13.30etara eta 16.00etatik 20.00etara egongo da zabalik (urtarrilaren 1ean ezik, itxita egongo da). Sarrerari dagokionean, egun bateko sarrerak 3,5 euro balioko ditu eta GUALan bertan erosi beharko da.



Erregeak urtarrilaren 5ean

OLENTZERO EIBARREN EGON ZEN opariak banatzen eta joan egin zen, baina orain Erregeek bisitatuko dute herria. Ohikoa den bezala, urtarrilaren 5ean iritsiko dira Eiba-rrera ekialdeko errege hauek eta ikuskizun polita eskainiko zaie euren etorreran.

Azken urteetan egin den bezala, Ipuruako kiroldagiko Dantza Garaikidea taldeak, Ipurua Gimnasia Erritmika taldeak eta Ballet Eibarresek emanaldia eskainiko dute Astelena pilotalekuan urtarrilaren 17.30ean. Dantza eta ikuskizunen artean Erregeak agertzea espero da bidai luzearen ostean. Astelena ikuskizunaren ostean, 18.30-etan, Erregeen kabalgatari emango zaio hasiera Untzagan. Eibarko musika bandaren laguntzarekin herriko kaleak zeharkatuko dituzte Erregeek berriro ere Untzagara bueltatzeko.



LTDaren gaineko standa Untzagan

URTARRILAREN 10EAN ITZALTZE ANALOGIKOA egingo da eta, ondorioz, ezin izango da telebista seinale analogikoaren bitartez ikusi. Horren aurrean, ikusleek hainbat aukera ditu telebista ikusi ahal izateko, kable edo satellite bidezko telebista, kasu. Hala ere, azken urteetan etxe askotan sartu den Lurreko Telebista Digitala (LTD) da Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duten bidea.

LTDaren gaineko informazioa jasotzeko stand informatiboa kokatu zuten abenduaren 22an Untzagan eta otsailaren 22ra arte egongo da bertan. Horrela, LTDaren gaineko zalantzak argitu ahal izango dira bertan eta edonolako informazioa jaso.

AMAÑA
FONTANERIA

- KALEFAKZIO INSTALAZIOAK
- SUKALDEAK ETA BAINUAK
- GALDARA ETA BEROGAILUEN INSTALAZIOAK
- BUTANO, PROPANO ETA GAS NATURALAREN INSTALAZIOAK
- AZTERKETA ETA PROIEKTUAK ORDENADOREZ
- AIRE EGOKITUA

T. Anita 12
Telefona. 943 201 930
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GURIA

ELECTRICIDAD

MUNTAIA ETA PROIEKTU ELEKTRIKOAK





Mateo 12 - Pelloñ 2 - Telef. : 943 70 00 95 - Fax: 943 62 00 97
www.electricidadguria.com - 20600 EIBAR - Gipuzkoa



Piztu LTDa

Askoz gehiago gozatuko duzu



Kalitate Handiagoa
 teknologia digitalak nudi- eta soinu-kalitate handiko telebista dakarkigu, zaratarik gabe, interferentziarik gabe eta nudi teknologiaz gabe.

Guztientzako Programazioa
 20 telebista-kanal baino gehiago izango dituzue zure eskara; beti koak eta kanal-eskaintza gehiagori handia, era askotako edukiekin (musika, hitzak, laguntzentzako, filmak, telesailak...).

Zerbitzu Elkarreragileak
 LTD1 esker, telebistako kide aktiboa bilakatuko zara. Hori guztia zure urrutiko kormo arekin.



Detalari **urtarrilaren 10ean** analogikoa eskubikatuko dira Gipuzkoako udalerri batzuetan. Telebista-kosten jarraitu nahit baduzu egiaztatu zure telebistaren instalazioa LTDn egokituta dagoen, honela ez bada, eros" eskudelegailu bat edo eskudelegailua duen telebista.

1. Auzolana eta Auzolana Berria, 1. Barri Nagia, Egoitza, Euzko Legegailu, Euzko Legegailu, Mendizola, 1. eta 2. Buztegia.

Informazio gehiago: 901 201 004

- 39 milioi eurotan onartu zen 2009ko **UDAL AURREKONTUA**: 15 milioi euro inbertsioetarako (horietako 4.850.186 euro Estatu Fondokoak). Hala ere, krisia dela eta, uztailean aurrekontua 2.200.000 eurotan murriztea erabaki zuten.

- Martxoaren 1-ean **EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK** egin ziren eta PSE-EE alderdiak lehenengo aldiz hartu zion aurrea EAJri Eibarren, 5.032 botorekin. EAJK 4.887 lortu zituen, PPK 1.337, baliogabeko botoak 1.272 izan ziren (ezker abertzalearen arabera horietako 1.232 Urrezko Bozkari dagozkienak), Ezker Batuak 538, EAk 533 eta UPyDk 118.

Hauteskundeen ostean PSE-EEko Patxi Lopez ezarri zen lehendakari bezala eta, honekin batera, **IÑAKI ARRIOLA** Herri-lan, Garraio eta Etxebizitza sailburu izendatu zuten. Horrela, Arriolak Legebiltzarrean lagatako kargua Benjamin Atutzak bete zuen.

- Ekainaren 7an, bestetik, **EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK** egin ziren. PSE-EEK 3.233 boto, EAJK 2.408, Iniziatiba Internazionalistak 1.427, PP-k 1.142, EA-Aralar-ek 654, EB-Berdeak 170 eta UPyD-k 72 izan ziren Eibarren jaso ziren emaitzak. Absentzia %58'42-koa izan zen.

- Eibarko EAko presidentek izandako Danel Zenarruzabeitia, Juan Cruz Gallastegi, Xa-




Gure herrian ere EA bitan banatu zen, zati batek HamaikaBaten alde eginez.



Puellesen aurkako atentatuaren ondorengo kontzentrazioa.

bier Laskurain eta Jose Antonio Mutiloak uztailean **EA LAGA**

etxera **GARAZI BITERI** gaztea, Picassenteko espetxean jaitako Amaiur alabarekin. Haika-Segi gazte erakundeen auziko epaiko sei urteko zigorra oso-osorik bete ondoren irten zen espetxetik.



Arriola alkate ohia Eusko Jaurlaritzako kontseilaria da gaur egun.



Eusko Legebiltzarrerako eta Europako hauteskundeak izan dira aurten.

ETA ALKARBIDERA joatea erabaki zuten. Eibarko EAko presidente kargua, berriz, Juan Luis Cristobalek hartu zuen.

Alkarbidek, bestetik, Hamakabat (H1) izena hartu zuen eta azaroan egin zuten alderdiaren aurkezpena Portalean.

- Aitor Alberdik bere kargua laga eta **EVA JUEZ** jarri zen EAJ alderdiko bozeramaile bezala irailan.

- Otsaila hasieran itzuli zen

- Ekainaren 20an **KONTZENTRAZIOA** egin zen Untzagan, ETA-ren atentatuan Eduardo Puelles-en hilketari gaitzesteko.

IbaiOndo inmobiliaria

C/ Bidebarritza 24, 1.a o. 48600 Eibar Tf: 945 20125

www.inmobiliariaibaiondo.com email: ibaiondo@inmobiliariaibaiondo.com



Euskal oinarrizko sindikatuek deituta, greba orokorra egin zen Euskal Herrian.

- **KRISI EKONOMIKOA** izan da protagonista nagusia 2009an mundu osoan eta Eibarren ez da gutxiagorako izan. Krisiak enpresen ixteak, EREak eta kaleratzeak ekarri ditu herrira eta horren aurrean tailerretako langileek hainbat protesta egin dituzte, Mendiguren y Zarraua, Alfa, Ayra Cardan, Iber-Leiber eta ABC-koek, kasu.

Protesta handiena, hala ere, maiatzaren 21ean egin zen **GREBA OROKORRA** deitu zuelako Hego Euskal Herriko gehiengo sindikalak, ELA, LAB, ESK, STEE, EHNE eta HIRUK.

- Krisi ekonomikoaren inguruan, **DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO IDAZKARITZA SOZIALAK** 'Krisialdi Ekonomikoa' izenburuaren inguruko jardunal-

diak eskaini zituen Rikardo Alberdi XVII. Aste Sozialaren baruruan.

- Azken urteetako joerari jarraituz, Eibar Merkataritza




Hainbat enpresen egoera salatzen mobilizazioak izan dira; Mendiguren y Zarrauarena, kasu.

Gune Irekiak **EIBAR FACTORING** neguko beherapen azoka antolatu zuen Astelena frontoian otsailean. Neguko zitaz gain, uztailen ere errepikatu zuten dendariak, baina honakoan Toribio Etxeberria kalean.

- Teknikerrek **CRISTINA GARMENDIA** Zientzia eta Berrikuntza Ministraren bisita jaso zuen otsailaren 19an. Garmendiak instalazioetan bisita gidatua egin zuen eta Erisonon Teknikerrek egingo dituen instalazio berrien planoak ikusi ahal izan zituen.

Teknikerrek, bestetik, goi-



Ion Ander Buenetxea.

mailako teknologiaren aldeko apustua egiten jarraitu du aurrean ere. Horrela, **ESPAINIAKO METROLOGIA ZENTROAK**, Madrilgo egoitzan, Teknikerrek garatutako barometroa hartu zuen maiatzean, munduko zehatzena.

- **FERROFORMA** Nazioarteko Burdindegi Azoka irailean egin zen Bilbao Exhibition Centerren eta bertan Eibarko hainbat enpresa izan ziren azken berritasunak aurkezten.

- **BILBAO BIZKAIA KUTXAK** urrian ireki zituen Gipuzkoan dituen lehen bulegoak, Eibar eta Zarautzen zehazki. Eibarko kasuan Toribio Etxeberria kalean kokatu da bulegoa, 150 metro karratu dituen, kutxazain automatikoarekin eta hiru pertsonen egiten dute lan bertan.

- **JON ANDER BUENETXEA ALFAKO** Zuzendari Orokorra Espainiako 20 zuzendari onenen artean aukeratu zuten.



Cristina Garmendia ministroak Tekniker bisitatu zuen.

ERREHABILITAZIO ZENTRUA

Zentruko sendagilea:
Ricardo Ibarra

- Errekuperazio funtzionala
- Fisioterapia ariketak

Eibarko
Patronatua



- Osakidetzarekin konkordatutako Zentrua
- Mutua eta Aseguru guztiekin egiten dugu lan

Urkizu 9 / Tel. 943 12 12 80 / Faxe. 943 12 03 58 / 20600 EIBAR

Zerekin gelditzen zara 2009. urtetik?



ISABEL LÓPEZ
44 urte
saltzaillia

Orokorrian nahiko urte konplikatu izan dala esango neuke. Batez be krisi ekonomikuarengaitik, izan be, hori asko igarri dogu danok eta dana aldrebestu dau. Gaiñetik begiratuta ez neuke esango berri on askorik egon danik.



DANIEL CONDE
60 urte
elektronika teknikua

Aurten gauza garrantzitsuak pasau dira nere bizitzan, gauza oso positibua, holan, urte ona izan dala esango neuke. Aurten jubilau ein naiz eta oso garrantzitsua da hori, benetan pozgarria. Maila pertsonalian urte ona izan da neretako, duda barik.

ELENA ARREGI
66 urte
etxeoandria

Ez dakat goguan iñungo gauza berezirik 2009. urtiaren gaiñian. Urte normala izan da eta holan oso pozik gaiñera. Ez neuke ezer berezirik azpimarratuko, garrantzitsuena osasuna dakagula da eta hori nahikua dala begitnantzen jata, pozik egotekua.



JESUS MARI KORTAZAR
60 urte
irakaslia

Neretako nahiko urte normala izan da, iñungo berezitasun haundi barik. Zeozer azpimarratzekotan kriis ekonomikua azpimarratuko neuke, horrek markatu dabelako modu batian esatiarren urtia, horrek eta krisixaren ondorioz sortu dan lagabezixak.



amplifon
ENTZUMEN GAITZARRAK

Ondo entzun hobeto bizitzeko

Amplifon-ek, entzumen konbidererako munduko lizenziatutako enpresa eskaintzen ditu:

- Entzumen ezintasuta dauden
- Puztasun handiko entzumen 3.3 egunerako
- 1522ko dekontaminazio eta audifono eratorerakoan
- Gaitza, eralditza leziozkoak, auzoan dagoen eremu ezintasuta dauden eremu eta zela paratatu. Entzumen gaitza eralditza.

Ordu ordu gaitza:
ENTZUMEN GAITZARRAK TEL: 943 201 951
20090 DEBA (11.443) 2002 22
19.443.201.951 (telefonoa) 11.443.2002 22

EGOITZA NAGUSIA
Bilabarrista 20 - behean, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorio eta Errepositorio laberak
- Egiturak Signo kolektorak
- Partikular, nazioko gogoratuak, zatiak eta
- Korak, zatiak, eta gogoratuak
- Partikular, nazioko gogoratuak, zatiak eta
- Partikular, nazioko gogoratuak, zatiak eta

Mugica Ehorzketa
Entzumen gaitza

**TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951**



Irailetik aurrera 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**



**AUTO
ESCUELA**

CURSOS INTENSIVOS

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



Gabonekin batera GUAia dator herrira. Urteak daramatza martxan gabonetako parkeak eta aurten ez da gutxiagorako izango. Bertako atrakzioetan jostatzeko eta tailerretan ibiltzeko ume asko pasatzen dira oporretan eta eurak zaintzen 15 bat begirale daude, tartean, Iñigo Larreategi Lehen Hezkuntzako Magisteritza ikaslea.

IÑIGO LARREATEGI, GUAiko begiralea:

“Armonia onean gaude GUAlean”

- Zapatuan ireki zituen atea GUALak. Nolakoak izan dira lehen egun hauek?

Oso ondo joan da dena, arazorik gabe. Jende askotxo etorri da eta umeak gogotsu etortzen direla igartzen da, oso ondo pasatzera datoz. Aurten Txal-txa Zelaian barrakak ipini dituzte, hainbat egunetan doakoak gainera, eta horren ondorioz ume gutxiago etorri dela ere esan daiteke. Hala ere, hemen ez dago jende faltarik eta GUALaren inguruan antolatzen den jaiak aurrera dirau.

- Zein da zure lana GUAlean?

Ohe elastikoetan dago nire

lekua eta, batez ere, hori zaintzea da nire lana. Gure helburua umeek ahalik eta ondoen pasatzea da eta hortan saiatzen gara, eurei ezer txarrik ez gertatzea ere zainduduz. Nire kasuan, adibidez, 10 urte azpiko umeak zaintzen ditut eta ondo moldatzen naiz eurekin.

- Hain ondo portatzen dira umeak?

Bai, oso ondo. Esan dudan moduan, ohe elastikoetan ume txikiak aritzen dira eta txikiegiak dira gaizki portatzeko.

- Zer da GUALtik gehien gustatzen zaizuna?



Bertan arnasten den giroa. Bikaina da, bai langileen artean, bai umeen artean, bai langile eta umeen artean. Armonia onean gaude.

- Eta gutxien?

Pasatzen dugun hotza eta arazo batzuegatik ura moztu digutela. Goiz eta arratsaldetan orduak pasatzen ditugu

ume eta begiraleek eta ezin gara komunera joan urik ez dagoelako.

- Zure lehen aldia da oraingokoa GUAlean?

Horrela da. Urtean zehar ikasten nabil, beraz, oporretako egunak aprobetxatzen ditut lan egiteko. Egun gutxi izaten dira eta, noski, errepikatzen modukoa da.

ZONA WIFI

DISCO

LURPERA

BAR

music

www.lurperamusic.com - tlf: 943 530 837 - PL. URZUA, 5 - EUBIA

**Gabon Zaharra ondo pasatu
..... eta etorri
Lurpera, dantza egitera!**

eitek 

SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

www.eitek.net

EITEK S.L.
Erakusketa: Bidebarrieta kalea 50
Zerbitzu teknikoa: Urtzaile z/g
 (Aurrera eraikina, 2. lokala)
 www.eitek.net

Bezzeroarendako telefona
943 203090

Diskoteka osasuntsua sortzen

**ASTE BURU ETA JAI
BEREZIETAKO GAUAK
(ETA ARRATSALDEAK)
BEREZIKI BIZI DIRA
EIBARRREN, JENDEA
KALERA IRTETZEN DA
ONDO PASATZERA,
ETA HERRIKO TABERNA,
DISKOTEKA ETA
HALAKOAK GAINEZKA
EGOTEN DIRA BERTARA
HURBILTZEN DIRENEI
AISIALDIRAKO BEHAR
DUTENA ESKAINIZ.**


Kalera irtetzen den jendearen asmoa ondo pasatzea bada ere, batzutan gauzak okertu egiten dira eta poztasunetik tristurara pasatzea posible da. Kausak anitzak dira eta horien artean drogen kontsumoa dago. Horren ondorioz gerta daitezkeen arriskuak murrizteko eta prebentzioa lantzeko **Discosana** izeneko prestakuntza-tailerrea antolatu dute Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritza eta Hazkunderak, Eibar-ko Udalaren laguntzarekin.

Bakoitza bere gorputzaren arduraduna bada ere, gauaren zoramenean posible da egiten denaren ikuspegia galtzea. Beraz, kontsumitzaileen onurarengatik asko egin ahal dutenak taberna, diskoteka eta horietako langile edota jabeak izan daitezke. Horiei, taberna, diskoteka, kafetegietako... langile eta jabeei dago zuzenduta **Discosana**.

Saio bakarra

Saio bakarrean egingo da **Discosana** prestakuntza-tailerrea. Urtarrilaren 13an izango da Punto y Aparte Diskotekan (Elgeta kalea, 1) 18.00etatik 20.00etara, eta dohainik eskainiko da. Euskeraz edo gazteleraz emango da, bertan parte hartzen dutenen eskaeraren arabera. Izena emateko, berriz, PEGORAn Herritarren Zerbitzurako Bulegoa) aurkeztu behar izango da 2009ko abenduaren 28tik 2010eko urtarrilaren 12ra bitartean (biak barne).

Edukien artean hiru gai nagusi jorratuko dira: gaueko aisialdia hobetzeko ingurumenaren gaineko jarraibideak



Drogen kontsumoaren arriskuen berri emango zaie gazteei prestakuntza-tailerrean.

Alkoholik gabe aisialdia posible dela erakutsi du Punto y Aparte azken 20 urteotan

ikastea, drogen gaineko informazioa ematea (ondorioak, arriskuak murrizteko neurriak eta abar) eta larrialdiren baten aurrean nola jokatu.

Punto y Aparteko 20 urte

Alkoholik gabe diskotekan ondo pasatzea posible dela

erakusten du Punto y Apartek. Hamarkada bi daramatza zapatu arratsaldeko gauean herriko eta inguruetakoz gazteak jasoz arrakasta handiarekin. Musikaren soinupean dantzan aritzen dira gazteak zapatu arratsaldetan Punto y Aparten, eta den-dena alkoholik gabe. Era-kusgarria da diskoteka honek Eibarko Udalaren laguntzarekin egiten duena, alkoholik gabe aisialdia posible dela erakusten duelako eta gazteei euren aisialdirako alternatiba eskaintzen dielako.

943 20 61 43

bar
ALDATZ
taberna

*Martxa nahi
baduzu... Zatoz!
Zure zain gaude*

San Juan, 3

KATU

KALE
TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

Mokka
interiorismoa

BARNE BIZIENA
ERAMIGEN GEROKO NABARIA
BIZIEN LUGAR KITA
PROIEKTU HERRIKOAK
GHEALAK
ALUMINIOAK
KAPERAK

Zelaiamara 19-1. Urteko
UF 8700980099

URTARRILEKO LEHEN EGUNEAN, ohiturari jarraituta, **Urkora** igota eman zioten ongietorria 2009ari askok. Urtero errepikatzen den beste ospakizun bat **Gureak** lantegikoek Errege egunaren inguruan egiten duten bazkaria da. Urkizu inguruko sozietateek (Bekuak, Denon Saha-tsa, Dorrepe, Edozer, Erdi Bana, Jaiki eta Urkusu Gain) osatzen duten Auzokoak-ekoek beharra gogotik egin zuten 130 lagunentzat jatekoa prestatzen. Eta ospakizunekin jarraituta, Azitainen **San Anton** etxaldeko abereen babeslea gogoratu zuten. Usartza Txistulari Bandak, Cielito Musika Bandarekin eta beste hainbatekin batera San Sebastian inguruan **Danborradaren** kontzertua eskaini zuen lehenengoz Coliseoan. **Lagun Taldearen** urteroko jaialdiak, berriz, martetarrak izan zituen protagonista emanaldi bikoitzeko ikuskizunean. Eta **haize bortitzak** kalte ugari eragin zituen herrian, hilaren azken egunetan.



MAKILLAJE IKASTAROA




DANBORRADA



ZIKLOIAREN BISITA



EITB-REN AURKAKO ATENTATUA



OBAMAREN ZIN EGITEA

ZIKLOI BATEK EMAN ZION ongietorria urteari Euskal Herrian. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei begira **Demokrazia 3 Milioi** alderdia aurkeztu zen. **Eslovakian euroa** erabiltzen hasi ziren. Estatu Batuetan gertakari historikoa: **Barack Obama** lehen presidente afroamerikarrak kargua hartu zuen.

DEBA BEHEKO ELKARTEA
ESKUALDEKO BATZORDE ERAGILEA

UGT **Euskadi**
DEBABARRENA
UROLA KOSTA

Sindikatuaren zerbitzura
Urte berri on!
ZORIONAK

Isasi, 2 - 1. -EIBAR-
☎ 943 82 07 82
Faxa. 943 82 04 09

“Denon Sindikatua”

En 2010

buruko eta kolektibitatearen
instalazio orain eta materiala

Erantzin baino. 12
200901082

☎ 944121971 / 944121974
fax 944121969
e-mail: ingurugua@2010.com

Ketea 2010

ANTZERKI JARDUNALDIAK



OTSAILAREKIN BATERA administrazio tramiteekin lotutako aldaketa bi ailegatu zitzaizkigun: batetik, **NAN elektronikoa** udaletxean luzatzen hasi ziren. Zerbitzua eskaintzen hasi eta lehenengo asteetan ilara luzeak sortu ziren. Bestalde, **Gizarte Segurantzaren** bulegoak Urkizutik Zezenbidera aldatu zituzten. Urteroko moduan **Santa Ageda** eta **San Blas** eskutik oratuta etorri zitzaizkigun. **Aratosteak**, berriz, egun batzuk geroago hasi ziren, hilaren 19an, baina Eguen Zuriko aurreko asteburuan Kezka dantza taldekoak koko-eskean ibili ziren baserririk baserri, konpartsari hainbat pertsonaia berri gehituta. **San Balentin** maiteminduen eguna batez ere jubilatu etxeetan ospatu zuten eta zinema-operatzaileek bazkaria egin zuten San Juan Bosco euren patroiairen omenez. Eta Ardantzako geltokiko beharrekin aurrera eginda, **Mekolara** zihoan **igogailua** eraitsi zuten, zatika.

ARATOSTEAK



BOLOGNAREN AURKAKO NEURRIAK



UHOIDEAK EUSKAL HERRIAN



KADIMA GARAILE ISRAELEN

ALDE BATETIK, EUSKO LEWEBILTZARRAK Espainiako **bandera** ipini zuen historian lehenbizikoz; eta bestetik, D3Mren hautagaitzak bertan behera utzi ziren Auzitegi Gorenaren aginduz. Italian, hamazazpi urtez koman egon ondoren **Eluana Englaro** hil zen, ospitaleko medikuek zunda bidezko elikadura murriztean.

iturri
ARDOAK
ETXERA ERAMATEN DUGU
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

AKONDIA
Albaitari Zentroa
Julen Arano / M^o Jesus Blanco
Bittor Sarasketa, 12
943 12 74 15

Irach
LORADENDA
- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

MARTXOAREN 8-AREN inguruan antolatutako programazioaren barruan, besteak beste andrazkoekin lotutako erakusketak eta antzezkiak eskaini ziren. Egun batzuetan udaletxeko sarreran martxan egon zen "Trenbidea da bidea" erakusketa ibiltariari esker, **Euskadiko trenbide sarearen** gaur egungo egoera eta etorkizunerako planak ezagutzeko aukera izan genuen. Eta etorkizunean eraisteko asmoa duten Asua Erreka kaleko **Tallarra gaztetxeak** 7. urteurrena ospatu zuten, programazio bereziarekin. Martxoaren 13an lagun bi larriki zauritu ziren Arrateko txabola batean gordeta zuten Gerra Zibileko **obus batek** esku artean eztanda egin zienean. Baina berri onik ere laga zigun martxoak: hilaren 15ean Donostian omenaldia egin zioten San Agustin kaleko **Jauregi dendari**, bere sorreraren 50. urtemugan. Eta jai koloretsuarekin eman zioten ongietorria udaberriari **Abontzan**.



BAROJA COLLET




EMAKUMEAREN EGUNA



KORRIKA EUSKARAREN ALDE



FERROFORMA ERAKUSLEIHOAN



SARRASKIA ALEMANIAKO IKASTETxean

EUSKARAREN ALDE KORRIKA hasi zen. Eusko Legebiltzarrerako **hauteskondeak** EAJk irabazi zituen, baina ez zion lehendakaritza ziurtatu Ibarretxeri. **Benetako IRAk** soldadu britaniar bi hil zituen Ipar Irlandan. **El Salvadorren hauteskondeak** egin ziren eta FMLNko Mauricio Funesek irabazi zituen.

UNBE TABERNA
 ✕ Pintxoak
 ✕ Haketak
 ✕ Hazkariak
 943 20 86 12 ☎ 943 20 86 81
EGUNEROKO MENUA

EGOKOP, S.L.L.
EGOKOP, S.L.L.
 Bidebarrieta, 46 - behea
 311 postakutxa 20600 EIBAR
 Tel. eta Faxe: 943 20 86 12
 egokopsll@euskalnet.net

FOTOKOPIAK - LASER - KOLEORA
 PLANOEN ERREPRODUKZIOA
 ENKUADERNAZIOA - PLASTIFIKATUAK
 FAX ZERBITZUA - CD-TIK INPRESIO
 DIGITALA Z/B - PEN-DRIVE-TIK
 INPRESIO DIGITALA Z/B




KULTUR ARTEKO JAIA

APIRILEAN PEDRUCHO ZEZENZALE Elkarteko urteko batzarrean omenaldia egin zieten Rosa Suárez Zuloagari eta Antonio de Blas "Zaldibarko Txikitori". Euskal presoak sakabanatzeko politika indarrean sartu zela 20 urte bete ziren eta, hori salatzeko, **Etterat**-ek herririk herri ibili zen karabana antolatu zuten. **II. Errepublikaren** aldarrikapenaren 78. urtemugan, besteak beste, Idi Ezkerra fundazioak prestatutako "gerako umei" buruzko erakusketa egon zen martxan. Eta Hezkuntzaren Aldeko **Munduko Ekintza Astean**, Egoaziak eta Aldatzek munduan oraindik ere 774 milioi lagun analfabetoak direla ekarri ziguten gogora. **Kultur Arteko Festak** munduko musika, artisautza, sukaldaritza eta bestelakoak batu zituen eta hilabete honetan abiatu zen XVI. **Nagusien Hamabostaldia**. Bestalde, **Juan Luis Ordorika** Arizmendiarieta 43 urteko mendizale eibartarra Aralarren hil zen, amilduta.



ERREPUBLIKA GOGOAN



ATHLETICA KOPAKO FINALEAN




ARTALDEAK MENDIETARA



LURRIKARA ITALIAN

EUSKAL HERRIAN TXERRI GRIPEAREN lehen kasua baieztatu zen. **Javier Ortiz** kazetari donostiarra zendu zen hilaren 27an. Italiako **L'Aquila herria** astindu zuen lurrikara batek (6'7 Richter eskalan) 294 hildako, 1.500 zauritu eta 15.000 etxe gabe utziz. **Hego Afrikan** ANCKo Jacob Zumak irabazi zituen **hauteskundeak**.



Larragest

INMOBILIARIA

api 353

Bidebarrieta, 12

Tel.690 61 07 15

MAIATZEAN JAIRIK ez zen faltan izan: **Santa Kurutzekoekin** ekin genion hilari eta bata bestearen atzetik etorri ziren **San Isidro**, XXVI. **Dia das Letras** Galegas, **Abontzakoak** eta maiatzeko azken asteburua bete zuen XLIV. **Euskal Jaia**. Ospakizunekin jarraituta, **Matrillako Irratiak** 7 urte bete zituen. **Argazkilaritza Maiatzean** programak, berriz, jarduera ugari ekarri zizkigun. Hilaren 13an inauguratu zuten **Armagintzaren Museoaren** bigarren zatia eta, inaugurazioekin jarraituz, hilaren 22an zabaldu zuten **Eibar-Gasteiz** autobidea osotasunean. Maiatzean ikusi genituen lehenengoz **Miquel Barceló**-k Alfa Arte enpresan egindako 8 metroko altuerako elefante biren eskulturak. Eta hilaren 17an egin zuten oraingo zezen-plazak hartuko duen **azken zezenketa**. Hilaren amaieran Eibarko **Herritarren Partehartzeko Mahaia**ren Talde Eragilea aurkeztu zuten.




PARTE-HARTZE MAHAIA



AUTOPISTAREN INAUGURAZIOA

PATXI LOPEZ EUSKO JAURLARITZAREN historiako lehen lehendakari ez abertzalea bilakatu zen. Krisi ekonomikoren aurrean gehiengo sindikalak **greba orokorra** deitu zuen Hego Euskal Herrian. Athletic Clubek 4-1 galdu zuen Bartzelonaren aurka **Errege Kopako** finala. **Indonesian** 98 pertsona hil ziren **hegazkin** istripuan.



BARCELÓ ALFA ARTEN



LEHENDAKARI BERRIA



A GRIPEA MUNDU OSOAN

Afilialu

www.ccoo-euskadi.net

CCOO
Confederación de los Trabajadores de Euzkadi

*CCOO-ek Euskadin
 elkarrizketa sozialaren
 eta negoziozko
 kolektiboaren
 alde egiten du*

lifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es

EROSI MODA PUNTOAN

PUNTOAN JANZTEKO

AUKERA:

- Aparteko kalitatezko artileak: ingelesak, alemaniarak, italiarrak, etb.
- Mertzeria fina
- Osagarriak: mangafandak, bufandak, poltsoak, txano bereziak, ...

Artile

WWW.ARTILEPUNTO.COM
INFO@ARTILEPUNTO.COM
 Bidebarrieta, 18 943-207227

SANJUANAK




EKAINAREN 14-AN ATZEGI elkarteak bailara mailako familia-topaketaren XI. edizioa Eibarren egin zuen. Eta beste horrenbeste urte-tan ospatu diren **Urkiko jaietan** 180 kilo otarrainska eta 75 cava-kaxa banatu zituzten, Brasilgo dantzarien kalejiraren erritmora. **Armeria Eskolako Sari** Teknologikoetan Mutrikuko Institutuko ikasleen “Semaforoa” proiektuak eraman zuen lehen saria eta bigarrena “Errekaren proiektua Azitainen” La Salle Azitaineko ikasleen lanak eskuratu zuen. Eta **Unibertsitate Laborala** zabaldu zela aurten **40 urte** betetzen direla ospatzeko, besteak beste, ekainaren 27an ikasleen eta ikasle ohien bazkaria egin zen. Eta **sanjuanen** inguruan hamaika jarduera egin ziren, tartean kontzertu arrakastatsuak: Su Ta Gar Untzagan egon zen bere 20. urteurrenean eta Fundación Tony Manero-k ere jende ugari erakarri zuen. Ekainaren 22an **Orbea kiroldegia** inauguratu zuten.


ORBEA INAUGURATZEN



GARONA IXTEAREN INGURUKO EZTABAIDA



ABORTOAREN LEGEA



MICHAEL JACKSON-EN HERIOTZA

ETA-K EDUARDO PUELLES polizia inspektore barakaldarra hil zuen. Estatu Batuetan, **Michael Jackson** abeslaria bere etxean zendu zen. **Hondurasko** armadak **estatu-kolpea** eman zuen, Manuel Zelaya presidentea atxilotuz eta Roberto Micheletti ipini zen presidente. **General Motorsek** ‘krak’ egin zuen.

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL



Bulego altzariak eta materiala
PAPERDENDA

Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com

Salerosketak
Traspasoak
Tasazioak
Alokairuak

Errebal 19
943 70 16 57

Carlos Vega
INMOBILIARIA

EIBARKO KIROL SARIEN XV. edizioa

Bihar, eguena, abenduak 31, dagoeneko ohitura denez, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien edizio berri batek bere zita izango du Eibarko kirol munduarekin. Hamabosgarrena izango da biharkoa.

Portaleko Areto Nagusian, goizeko 12.00etan hasiko den ekitaldian, modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; modalitateei dagokienez, 25 sari banatuko dira eta, euskeraren saria eta sari bereziarekin batera, 27 izango dira guztira emango direnak.

Lerro hauetatik, eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol taldeei, urte guztian egiten duten lanarengatik.

SARI BEREZIA




Ramon Telleria
Eibar Rugbi Taldea

ARETO-FOBALLA




Rafael Alberdi
Eibarko Areto-Foballa

ARKU TIRAKETA



Pablo Gaztelu
Arkulariak

ATLETISMOA




Oihane Sarasketa
Eibarko Klub Deportiboa

AUTOMOBILISMOA



Cristian Perez
Escuderia Eibar

ERRUGBIA




Igor Sendino
Eibar Rugbi Taldea

ESKIA




Irati Fernandez
Eibarko Klub Deportiboa

ESKUBALOIA




Imanol Alvarez
Juventud Deportiva Arrate

FOBALLA



Lorena Valderas
Eibar Kirol Elkarte

HERRI KIROLAK



Aitor Buendia
Eibarko Euskal Jokoak

HIRU TXIRLO



Faustino Lazkano
Asola Berri


IGERIKETA



Ander Romarate
Urbat-Urkotronik

abenduak 31, eguna, 12.00etan, Portalean

JUDOA



Eneko Lores

Judo Kalamua

KARATEA



Tamara Amador

Ipurua Kiroldegia


MENDIA



Fernando Lete

Eibarko Klub Deportiboa


MOTOZIKLISMOA



Aitor Montero

Aguñaspi-Iris

PILOTA



Gaizka Unamunzaga

Eibarko Klub Deportiboa

SASKIBALOA



Alberto M.-Alcocer

Katu Kale KA 1173


SQUASH



Jon Losada

Eibarko Klub Deportiboa


TIRO OLINPIKOA



Asier Lamariano

Club Tiro Dinbi-Danba


TRIATLOIA



Josu Gisasola

Eibar Triatloi Taldea


TXIRRINDULARITZA



Ane Santesteban

Debabarrena


WATERPOLOA



Paben Ortiz de Zarate

Urbat-Urkotronic


WU-SHU



Erick Lopez

Ttatt Gimnasioa

XAKEA



Julen Garro

Eibarko Klub Deportiboa


EUSKERA SARIA



Jose M. Bengoetxea

Eibarko Klub Deportiboa

GINNASIA ERRITMIKOA



Noelia, Maria F., Irati, Cristina, Ane eta Maria E.

Ipurua Gimnasia Erritmikoko Infantil mailako taldea

UZTAILEAN PORTALEAN igogailu berria ipintzeko beharrak hasi zituzten eta horrek hainbat aldaketa eragin zituen; besteak beste, eraikinerako sarrera tokiz aldatu behar izan zuten eta Bista Eder kaleko ate nagusiaren ordez, Eulogio Garate kaleko atea erabiltzen hasi zen. Herriko auzoetako jaiak eskaintako ekitaldiek bete zuten udako aisialdirako tartearen zati handi bat eta, iaz gertatu zen bezala, aurten ere egutegian bat egin zuten **San Kristobal eta Amañako jaiak**. Asteburu bakarrean kontzertua eskaini zuten Siniestro Total eta Los Manolos taldeek (San Kristobalen) eta Cobra, Gatibu eta Seiurte-k (Amañan). Lambretta motorren VI. Kontzentrazioak biribildu zuen asteburua. Eta ikastetxeetan oporretan zeudela aprobetxatuta, haur mordoak Astixak kudeatutako **Afariketan** programarekin bat egin zuten. Eta hilaren 23an eta 24an udako **beherapenen azoka** egin zuten dendariak.




AMANAÑO JAIK



ESNEGILEEN PROTESTAK

SANFERMINEK HILDAKO BAT laga zuten enzierroetan. Mikel Aslarloza eta Juanma Garatek **Frantziako Tourreko** 16. eta 20. etapak irabazi zituzten, hurrenez hurren. 140 pertsonatik gora hil ziren **Txinako** Urumqi hirian egondako **istilu etnikoetan**. **Jakartako luxuzko hotelen aurkako atentatuan** 9 hildako eta 40 zauritu egon ziren.



SANFERMINAK



ATENTATUA BURGOSKO KUARTELEAN




ZELAYA HONDURASERA BUELTATZEKO SAIOA

TXOKO
Giro alaiak Gabon Zaharreen!
UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR


GAUR
 ELEKTRIZITATEA
 INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK
 ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK
 Zuloagatarren 9, behea 20600 EIBAR
 Telefonoa 943 20 62 40 Faxa 943 05 69 23

UDAKO OBRAK



ABUZTUA URTERO APROBETXATU ohi dute herriko kaleetan hainbat konponketa egiteko. Batez ere **asfaltatuak** izan ziren protagonista eta, horiekin batera, **Txaltxa Zelaian**, jubilatuen gaineko terrazan lurra aldatzeko egindako beharrak. Azken horiek ia sanandresak arte luzatu ziren eta hilabeteetan parkearen zati hori itxita egon zen. Eta itxierak aipatuta, abuztua hasi baino egun batzuk lehenago betirako itxi zituen ateak Untzaga zinemak: eman zuten azken pelikula “Asalto al tren Pelham” izan zen. Bestalde, Ego Ibar zine-klubaren eskutik **udako zine emanaldiak** eskaini ziren Untzagan. Ohikoa denez, **ordezko alkateak** txandakatu ziren: Maria Jose Telleria, Eneko Andueza, Nerea Alustiza eta Arcadio Benítez zinegotzien artean banatu zuten ardura. Eta herritik kanpora ere jaiak jarraitu zuen: **Ustekabe** fanfarrekoak Gasteizen izan ziren, Ama Zuriaren jaietan.

IBON UZKUDUN



PRESEN ARGAZKIAK KENTZEO AGINDUA



BERO SARGORIA GUREAN ERE



KENNEDY DEMOKRATAREN HERIOTZA

ERTZAINTZAK EUSKAL PRESO politikoen argazkiak kendu zituen Bilboko jaietan konpartsen txosnetatik. **Usain Boltek** urrezko domina lortu zuen Berlingo Munduko Atletismo Txapelketan 100 eta 200 metroko proban, munduko marka gaudituz bietan. **Argentinako neguan bero-bolada** izan zen 38° zentigradora helduz.

FOTERO
OKINDEGIA
OPILEDGIA
 Kafe goxoa
 dastatzeko aukera
 Rialtoko Merkatu Plaza 943-700897

Ibarkurutze, 5
 943 20 37 15
 www.muebleskarlos.com
Karlos
 altzariak,
 koltxoiak eta
SUKALDEAK

IRAILA HASIERAN Arrateko Amaren jaiak eta Kofradia Egunak jende ugari erakarri zuten Arratera; horiek pasatu berri, Arrate izenekoek bazkaria egin zuten. Hilabeteari agur esan aurretik, **Aginaga** auzoan San Miguel jaiak abiatu ziren. Bestalde, As Burgas Galiziako Etxeak 25. urteurrena ospatzeko, **enpanadaren jaiak** egin zuen eta Kantabriako Etxekoek, berriz, **Bien Aparecida jaiak** ospatu zituzten. Herriko 4.275 neska-mutilek **ikasturteari ekin** zioten eta, herri barruko politikari begira ipiniz gero, kurtsoa hauts ugari harrotu duen proiektu baten inguruko berri batekin hasi genuen: Udaleko Gobernu-Batzarrak **Errebal Center ez dela egingo** eman zuen ezagutzera. **Gripearen aurkako** txertaketa-kanpaina beste batzuetan baino lehenago abiatu zen. Hilaren 17an El Corte Inglés-eko beharretan ziharduen gazte bat hil zen. Eta hilaren 29an abiatu zen lehenengoz antolatutako **Expoadintsu Azoka**.




ERREBALEKO ZULOA



HONDARRIBIKO ALARDEA

BRAD PITT ETA QUENTIN TARANTINO-K 'Inglorious bastards' pelikula aurkeztu zuten Donostiako Zinemaldian. Donostian bertan, Kaikuk **Kontxako Ikurriña** irabazi zuen. **Samoa eta Sumatran lurrikarek** 189 eta 1.300 hildako utzi zituzten, hurrenez hurren. **Patrick Swazye** aktorea hil egin zen kantzerraren ondorioz.



ARRATEKO JAIK



HESIA DEBAKO ADINGABEKOENTZAT



AUSTRALIA GORRIZ JANTZITA

Laguntza Teknikorako
Zerbitzu Ofiziala

EIBARSAT

Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar...


IFAR KALE 8
Tel. eta Faxe. 943 20 67 17
20600 EIBAR

BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA

Eguneroko
ogia

☎ 943 20 40 66 (Ibarkurutze) ☎ 943 20 42 24 (Amaña)

SAGARDO EGUNA




URRIKO LEHENENGO ZAPATUAN ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik ospatutako **Sagardo Eguna** berritasunez beteta egon zen: to-larea martxan ipini zen Untzagan eta sagardotegietatik ekarritako 2.000 litro sagardo banatu ziren. Beste sasoi bat gogoan, Usartzako domeketako erromerietara joaten ziren hainbat lagunek bazkaria egin zuten Krabelinen eta Akuiluk antolatutako **Gazte Baserritarren Martxak** herria zeharkatu zuen hilaren amaiera aldera. **Sostoa abesbatzaren 25. urteurrenerako** programazioaren barruan erakusketa inauguratu zuten Portalean, bazkari berezia egin zuten eta Ainhoa Artetak kontzertua eman zuen San Andres elizan. Musikarekin jarraituta, **Eibar Kantuan** egin zen Astelena frontoian eta lau abesbatza ekarri zizkigun **XVII. Musikaldia**k. Ipuruako **Kontzepzioko mojek** komentua laga zuten, Eibarren 500 urtez egon eta gero.

SOSTOAK 25 URTE



EZKER ABERTZALEAREN AURKAKO ATXILOKETAK



TREN ISTRIPIUA BIZKAIAN



HAUTESKUNDEAK AFGANISTANEN

ALAKRANA ITSASONTZI BERMEOTARRA bahitu zuten piratek Somalian. **Xabier Lete** eta **Kirmen Uribe**k Euskadi Literatur Saria eta Espainiako Narratiba Saria irabazi zuten, hurrenez hurren. **Irlandak** baiezkoa eman zion Lisboako Itunari. Nazio Batuen Erakundeak **Kubarekiko oztopo ekonomikoa gaitzetsi** zuen.

bid

– GIDA ETA ARMA-BAIMENAK
– ZIURTAGIRI MEDIKUAK

20
urte
zurekin

Arikixaneko zubia, 1 - behea (EIBAR) Tel. 943 200 501

Aldez aurretik
txandarik hartu gabe


AZAROAN EIBARKO TREN GELTOKIA zaharberri zutela ehun urte bete ziren. Ehiza eta perretxiko sasoiaren murgilduta, Krabelin jatetxeak maridaje jardunaldiak eskaini zituen eta, **Jardunaldi Mikologikoei** laguntzen, lehenengoz herriko hainbat artisauk azoka ipini zuten. **Gaztañerre eta magostoak** gaztainen inguruko jaiak ere ospatu ziren gurean eta **Santa Zeziliaren** bueltan emanaldi bereziak eskaini zituzten musikariek, tartean zuzendari aldaketa izan duen Cielito Musika Bandak. Azaroaren 25a **emakumeenganako indarkeriaren kontrako** eguna izan zen. Bestalde, **Udal Artxiboak** instalazio berriak estreinatu zituen, udaletxeko 4. pisuan eta **saihesbidearen 3. faseko** beharrak modu ofizialean hasi ziren eta hilaren 28an eibartar ugari batu zen Egunkaria-ko auzipetuei elkartasuna adierazteko argazkirako. **Sanandres jaien** bezperan inauguratu zuten **El Corte Inglés** berria.



EL CORTE INGLÉS



SANANDRESAK



OLATU BIZIAK KOSTALDEAN

34 GAZTE ATXILOTU eta inkomunikaturik geratzen dira, Segi gazte erakundeko kideak direlakoan. **Nafarroako** Gobernuak euskarazko hedabideei **diru-laguntzak** ematea uko egin zien. **EAE eta Akitaniaren** artean euroeskualea osatzeko lehen urratsak eman ziren. Espioitza kasua eman zen **Peru eta Txileren** artean.



ALAKRANAREN BAHIKETA LUZZA



HESIA APURTZEAREN URTEURRENA

Laukolan
SOLUCIONES INFORMÁTICAS

Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087
Urkizu Pasealekua, 10 (20600 EIBAR)


MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA


San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

GABONETAKO ARGIAK



ABENDUAN, TOLOSAKO NAZIOARTEKO Txotxongilo Jaialdia martxan zegoela aprobetxatuta, erakustaldian parte hartu zuten ikuskizunetako batzuk gurera ailegatu ziren **Titirijai** 2009 jaialdiaren eskutik. Urteetan Urkizun egon den Batzokiak, berriz, egoitza berria estreinatu zuen Ego Gain kalean. **Euskeraren egunaren** bueltan, Juan San Martin 2009 Beka Francisco Javier Muñoz Fernández-ek "Euskal Herriaren eraikuntza gerra ostean: Eibarko herriaren berreraikuntza" izenburuko proiektuarekin eskuratu zuela jakin genuen. Hilaren 6an **Jose Ramon Orozko** tenore eibartarra hil zen, 87 urterekin. Gabonen inguruan antolatutako musika emanaldiak haren omenez izatea erabaki zuten Udalean. Urtea amaitzeaz daukagun honetan, 2009.a eibartar batekin agurtzeko aukera izango du nahi duenak, ETB-2 kateak Gabon Zaharrerako prestatu duen saio berezian izango baita **Ibon Uzkudun**.

EUSKERAREN EGUNA



EGUNKARIAREN ALDEKO MOBILIZAZIOAK



HOTZ POLARRA BISTAN



AMINATUREN GOSE GREBA

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN AUZIA hasi zen eta hori salatzeke milaka lagun bildu ziren Bilbon. **FC Barcelonak** urte berean 6 titulu irabazi dituen munduko talde bakarra bilakatu zen klubaren arteko mundiala irabazi ondoren. **Eskoziaren independentziari** buruzko galdeketa egiteko bide orria aurkeztu zuen Alex Salmond-ek.




*Super BM IFA taldea,
zure eguneroko erosketara*



Julian Etxeberria, 14-16

Tel. 943 70 15 90



JOSE VICENTE PEROSANZ
M^a LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA

EGUREN
&
ASOCIADOS
ABOGADOS

TEL. 943 204 194

FAXA. 943 820 006

Urtzaille, 1 20600 EIBAR egurenysoc@sarenet.es



ZINTZILIKARIOA:
10 euro



BELARRITAKOAK:
30 euro



ESKUMUTURREKOA:
7,60 euro



ZINTZILIKARIOA:
8,20 euro

ZINTZILIKARIOA:
7,50 euro




ESKUMUTURREKOA:
34 euro

...eta Euskara E Gabon KATAI



AHOZAPIA:
3,30 euro

AMANTALA:
20,70 euro



HIGROMETROA:
25,50 euro

MAHAI-OIHALAK:
180x200: 48,10 euro
180x250: 60,50 euro
180x300: 70,20 euro



UMEAK:
2, 4 eta 8
18 euro

NAGUSIAK:
M, L, XL
23 euro

NAGUSIENDAKO
BAINU-BATA:
S, M, L, XL
67,50 euro



JAIOBERRIENDAKO
TOALLA:
17,60 euro



TOALLAK:
30x50: 7,30 euro
50x100: 14,50 euro
70x140: 24,20 euro
100x150: 34,80 euro



Etorri oparien zerrenda egitera. Egunero, ...eta kitto! Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)
10.00/13.00 eta 16.00/20.00.

IKUSI, AUKERATU eta ENKATU


kitto! Elkartearen metako KATALOGOA

Katalogoak dituen
irabaziak euskera
sustatzen erabiliko
ditugu



EGURREZKO
OPARIAK



UMEENDAKO
BAINU-BATA:
2, 4, 6, 8
44 euro



Iruñeko
KARRIKIRI
Euskara
Elkartea

ARGUA EGIN!

DISKA, DVD, MAHAI-JOKO ETA LIBURUAK



BESTE DISKA, DVD ETA JOKOAK:

69 abesti jolasteko (16 euro); Aiko (10); Anari (14,60); Asko maite zaitut (13,40); Añoamendi (18,80); Betagarri (16); Bulun-bulunka (13,40); Euskal Herriko Mapa erliebean (106); Egizu lo (16); Egutegia 2010 (8); Elbereth (12); Euskara Jendea (32); Etxe (13); Fermin Muguruza Remix (12); Gari (16); Goazen (12,95); Gose 3 (14,60); Gu Ta Gutarrak (15); Handitzen Handitzen (13,40); Kantiruri (18,50); Katramila (25); Ken Zapzi (18,50); Kerobia (8,30); Kudai (12); L.Iriondo+X.Lete (13,40); Malenkonia (14,60); Mendeku Itxua (12); Mihiluze (35); Mikel Laboa Gernika zuzenean (16); Mikel Urdangarin (13); Norman (14); Olentzero DVD (12,95); Orhipean (24,50); Patxi eta Konpainia (14); Pello eta Osoa (20); Petti (9,50); Piztiak (14,60); Ruper Ordorika (16); Su Ta Gar (22); Txikia izanik (13,40); Zaharregia Txikiagoa (20); Zeren Zai (15,75); Zinema Etxean 3 DVD (36).

- **PORTALEKO ERAKUSKETA ARETOAK** urte osoan hartu dituen erakusketek artearen esparru guztiak ordezkatu dituzte eta artista ugariaren beharrak ikusteko aukera egon da: Ion Erramun Etxeberriaren margoak, Txaro Arrazolaren artelanak, Ainize Txopitearenak, Eibarko Artisten Elkartearen lanak...


- Bestalde, **HERRIKO ARTISTEN LANAK** beste herri batzuetan ikusteko aukerarik ere izan da: besteak beste, José Zugastiren eskulturak Kursaalaren egon ziren ikusgai; martxoa eta apirila bitartean Jazinto Olabe (1877-1957) margolari eibartarraren lanak erakusketa hartu zuen Donostiako Kutxa Boulevard aretoak; eta aurretik Portalean martxan egon zen Juan Luis Baroja Collet eta Jesus Mari Olaizola "Txilikur"ren "Piztiarioa" irailaren Donostiako Koldo Mitxelenaren ikusteko aukera egon zen.

- **ARRATE KULTUR ELKARTEKO** erakusketa aretoak ere artista ugariaren lanak hartu ditu urte osoan. Topalekuak erakutsi dituen lanen egile-zerrenda benetan luzea izan da, baina, horrez gain, taldekako erakusketak garrantzitsu batzuk ere izan di-

tu martxan, adibidez martxoan herriko andrazkoen artelanekin osatutakoa.

- Eta ohiko erakusketa aretoetatik kanpora ere, **HERRIKO TABERNETAN** hilero aldatzen joan dira Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordeak antolatutako erakusketak.

- **DANTZA IKUSKIZUN BERTZAILAK** eskaini dira aurten. Besteak beste, Iker Gómez koreografo eibartarrak "Absurdo" ikuskizuna aurkeztu zuen urtarila



Maita Arroitauregik bakarkako proiektuari ekin dio aurten.

amaieran Coliseoan. Eta martxan Dantzaz konpainiak "Lur



Danbako lehiaketan finalista izan zen Norman taldeak diskoa aurkeztu zuen Durangon.

Sagar" dantza ikuskizuna aurkeztu zuen.

- **AS BURGAS GALIZIAKO ETXEAN** zuzendaritza aldaketa egon zen: Amilcar Dos Santos izango da presidentea datorren urtearen amaiera arte.

- **EIBARTARREN AHOTAN** gure herriko ahozko ondarea jasotzeko proiektuari beste hamar eibartarren bizipenak gehitu zizkioten.

- Coliseoak ikasturte osorako **ANTZERKI PROGRAMAZIOA** eskaini du: hilero antzezlan bi taularatzen dira, bat helduentzat eta beste bat umeentzat. Gainera, irailaz geroztik zine komertziala ematen hasi dira.

- Urte osorako **PROGRAMAZIOA** eskaini du **ARRATE KULTUR ELKARTEAK** ere: besteak beste, masaje tailerra, bertsolaritzaren inguruko ekital-

diak, irteera kulturalak, udako diaporama emanaldiak eta antzerki irakurria aipatu daitezke.

- **32. ANTZERKI JARDUNALDIAK** otsaila eta martxoa bitartean egon ziren martxan: Lola Herreraren hitzaldiarekin abiatutako egitarauak 20 antzerki konpainia eta 25 funtzio hartu zituen.

- Martxoan aurkeztu zuen aurten 25 urte betetzen dituen **SOSTOA** abesbatzak urte osoan garatzeko programazio berezia.

- Klub **DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA**rentzat urte biribila izan da, sariei dagokienez, behintzat. Taldeko kide batek baino gehiagok sariren bat eskuratu du lehiaketaren batera aurkeztutako lanekin. Aipatzekoa da Juan Antonio Palacios, bere argazkiek Ceutan, Kordoban, Leonen, Canbrilsen eta Donos-

OREKA TERAPIA ZENTRUA

Urki, 17-19
Tfnoa. 943 20 86 06



ESKU TERAPIAK. ARIKETA POSTURALAK.

Javier Azpilikueta. Esku terapeuta.

Osteopatia estrukturala, Kirol masajea, Esku terapeutika, Masaje reflexogenoa eta Terapia kraneo-sakrala *diplomatu*.

METABOLISMOAREN AZTERKETA. DIETA PERTSONALIZATUAUAK. PISUAREN KONTROLA.

Silvana Huegun. Nutrologoa. ☎ 656 71 61 19

Dietetika eta Nutrizioan *tituloduna* Nafarroako Unibertsitatean; Naturopatian *diplomatu*.

MEDIKUNTZA NATURALA. AKUPUNTURA ETA HOMEOPATIA.

Ricardo Arriola. Medikua.

Akupuntura eta Homeopatian *diplomatu*. Sendabellarrekin tratamenduak.



LUGI

ILEAPAINDEGIA

Tfnoa. 943 12 15 62

Bidebarrieta, 60
EIBAR



Klub Deportiboko argazkilaritza taldeak sari nazionala jaso zuen.

tian saritu dituzte eta. Eta hori gutxi balitz, Argazkilaritza Sari Nazionala jaso zuen taldeak, Andorran egindako ekitaldian.

- **JOSE RONCO** argazkilariak Alfan ateratako argazkiak Photoespañan ikusgai egon ziren eta Bakarne Elejalderen lana, berriz, Europan herririk-herri erakusten jardun zuten.

- **ESKOLARTEKO XXV. ANTZERKI** Erakusketak berriz ere programazio zabala eskaini zien eskualde osoko ikasleei.

- **EUSKAL JAIA**ren inguruan eta berritasun gisa, "Bertsoa&Jazza" izenburuko ikuskizuna hartu zuen Coliseoak.

- **UEUK** udako ikastaroetan eskaintza zabala prestatu zuten udarako. Ikastaro horietako hamabost Markeskuan eman zituzten. Udazkenerako ere ikas-

taro ugari antolatu zituzten egoitza berean.

- Ekaina aldera liburu bi kaleratu ziren: **ASIER SERRANO**ren "Erlojugilea" eta **JOSÉ ANTONIO ARTAMENDI** filosofoaren "Hablando con Xavier Zubi" lanaren hirugarren bolumena.

- Amaña herri ikastetxeko eta Arrateko Andra Mari (Urki) ikastetxeko hainbat ikasleren arte-lanak Bilboko **GUGGENHEIM MUSEO**an ikusteko aukera egon zen udan, "Artea Ikasbide" izenburuko proiektuari esker.

- **JEDD NOVATT** artistaren eskulturak Alfa Arten ikusgai egon ziren ekainean.

- **GORUNTZ** abesbatzak sanjuanak aprobetxatu zituen Nueva York-eko Saint Patrick's katedralean abesteko.

- **ANTXON URRUSOLOK** "La


cocina del Monasterio" liburua aurkeztu zuen udan.

- **IDURRE ALONSO** filologo eibartarrak "Literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko Batxilergoan. Edukin kontzeptualetatik gaitasun komunikati-boetarako bidean" lana eman zuen argitara EHuren bitartez.

TAINek INDALEZIO OJANGUREN LEHIAKETAKO sari nagusia lehenengoz Eibarren gertzea lortu zuen.

- **EGO IBARRA** batzordeak bere webgunea (www.egoibarra.com) goitik behera itxuraberritu zuen, atal eta eduki berriak gehituta

- Azaroan **ASIER ERRASTI** 10.



Jazinto Olaberen lan onenak Donostian ikusi ahal izan ziren.

- **MAITE ARROITAJAUREGI** musikariak "Mursego" bakarkako proiektua aurkeztu zuen Coliseoan.

- Untzagak **LIBURU ETA DISKO AZOKA** hartu zuen urrian.

- Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko **VIRGINIA ARAKIS-**

Eibarko Laburmetraia Jaialdiak 166 lan batu zituen.

- Eta urtea amaitu aurretik, **DURANGOKO** Euskal Disko eta Liburu **AZOKA** hainbat eibartarren lanak erosteko moduan izan dira, tartean Norman taldearen lehenengo diskoa.

100 m²ko autozerbitzua

altzariak. menajea. bainurako osagarriak. ehungintza. argiztapena. opari pertsonalak. osagarriak.

Kora Eibar
Isasi, 18 943 53 12 59

PSIKOLOGIA — SEXOLOGIA

Ana Oiarzun Zabaleta



AHOLKULARITZA eta BITARTEKARITZA

BIKOTEA: gatazkak,
dibortzioa, ...

FAMILIA:
gurasoak/semi-alabak, ...

Blas Etxebarria 2 - behea
Telf. 943 20 08 20 Mobila. 635 74 62 50

- Urtarrilaren 21ean **GOTZON IPARRAGIRRE**ren "Debarroko oasi liberala" liburuaren aurkezpena egin zen.

- ...eta kitto! aldizkariak **UKAN BERRIKUNTZA SARIA** jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordezaren eskutik.

- **ERREGISTRO ZIBILEAN** jaiotza, ezkontza eta tutoretza in-skripzioak **EUSKERAZ** egiteko aukera eskaintzen hasi ziren.

beste, ekainean, **MINTZA EGUNA**ren 4. edizioan hartu zuten parte, Gasteizen. Egun horretan Kontxa Laspiur eta Puri López eibartarrak omendu zituzten.

- Martxoaren 28an **EUSKAL UNIBERTSOA** '09 ekimena ospatu zen Euskal Herriak Bere Eskola herri mugimenduaren eskutik.

- Euskara-Kultura sailak azken **KALE NEURKETAKO EMAITZAK** azaldu zituen martxoan: azken urteotako erabileraren



...eta kitto!-k Eusko Jaurlaritzako Ukan Saria jaso zuen.

bataz bestekoa %25aren inguru-an kokatzen da.

- ...eta kitto! Euskara Elkarteak **BAZKIDE BERRIAK** lortzeko kanpaina ipini zuen martxan eta elkarteko bazkideentzat txartela sortu zuen.

- **IPURTERRE** Ipuin Lehiaketan 1.070 ipuin jaso ziren.

- Maiatzean, "**ILLUNABARRI-AN**" programaren barruan, bertso-afaria egin zen Bide Alde elkarte gastronomikoan. Azaroan Alberto Iñurrategik "Begiz-begi" ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen.

- **JAZ-ZUBIAURRE** tailerrak "Eskuila metalikoen hiztegi tekniko" aurkeztu zuen urrian.

- Eibar Merkataritza Gune Irekiak herriko **DENDA EUSKALDUNEN KATALOGO**A osatu eta aurkeztu zuen udazkenean.

- Abenduaren 3an, **EUSKARAREN EGUNA** ospatzeko, 12 orduz jarraian

irakurri ziren Juan San Martinek idatzitako "Zirikadak" eta "Eztenkada" liburuak.

- Abenduaren 17an aurkeztu zuten **EIBARKO EUSKERAREN WEBGUNE BERRITUA**: www.eibarko-euskara.com. Ekitaldian Serafin Basauriri "Txopitea eta Pakea" eskulturaren erreproduktzioa eman zion Udalak.



"Eskuila metalikoen hiztegi tekniko" aurkeztu zuten Jaz-Zubiaurren.


- **KORRIKA 16** Eibarrera apirilaren 4an ailegatu zen, zapatu gauean, eta jende ugari hartu zuen parte. Korrika Kulturealean ekitaldi bereziak antolatu ziren.

- Otsailean Foru Aldundiak **BABES EKONOMIKOA KENDU** zien Topagunea Euskara Elkartearen Federazioari eta Kultur Errota zirkuitoari.

- **BERBETAN** programan, astean behin euskeraz berba egiteko batzeaz gain, beste jarduera batzuk ere egin dira: besteak



Berbetan programako partaideak Gasteizen egin zen Mintza Egunean izan ziren.



Omenaldia Serafin Basauriri.

- **EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA**ri jarraituta, Euskal Bertsozaleen Elkarteak bertsoaritzaren hastapenak lantzen dihardu ikastetxeetan eta Coliseoak Umeen Bertso Jaialdiaren emanaldi bi hartu zituen.

- **MERKATARITZA**n euskeraren erabilera sustatzeko logotipo lehiaketa Silvio Vaz-ek irabazi zuen.

ruibal 
alquiler de vehículos

 **ZAMARAKO ETA BIDAARIENDAKO (5etik 9 plazara) FURGONETAK**

 **HARTZEKO ETA LAGATZEKO ZERBITZUA**

 **FURGONETAK EROSTEKO AUKERA**



943 17 62 60

www.ruibalokp.berdevehic.com





urkotronik

**Zorionak eta Urte
Berri On Guztioi!**





7. Dan-a Manu Agirrerentzat

MANU AGIRRE CLUB KALAMUAKO judo entrenatzaileak 7. Dan-a jaso zuen abenduaren 19an Espainiako Bartzorde Olinpikoaren egoitzan. Maila berri honekin Agirrek judoaren maila guztiak lortu ditu elitera iritsiz.

Lau urre Durangon

Abenduaren 20an I. Infantilen Judo Txapelketa Internazionala jokatu zen Durangoko Landako polikiroldegian.

Palentzia, Kantabria, Frantzia, Araba, Bizkaia, Errioxa eta Gipuzkoako 200 bat judokek hartu zuten parte bertan eta eibartarrek emaitza bikainak lortu zituzten. Ander Muñoz, Josu Abalos, Asier Sebastian eta Nekane Mugerzak urrezko dominak lortu zituzten; Eneko Lores, Jon Alzaga eta Unax Simonek zilarrezkoa; eta Iker Cabo, Unai Lomana eta Iker Gorostizagak brontzezkoa.



Batu eta segi: Markel Alberdi igerilariak ez du mugarik

TOLOSAKO USABAL IGERILEKUETAN jokaturako igeriketako Euskadiko Kopan, Urbat-Urkotronikeko igerilariak ikaragarritzko markak egin zituen 200 metro libreetan eta, horrez gain, modalitate bereko 50 metroetan 18 urtekin lortutako Espainiako marka ezarri zuen, 22 segundo eta 78 ehunenekoekin. Daraman martxari eusten badio, oraindik maila handiagoko lorpenekin ezuste bat baino gehiago emateko moduan izango da.

Olabe eta Garro Gipuzkoako xake txapelketan

EDU OLABE ETA JULEN GARRO Deporrekoko xakelariak Gipuzkoako Jubenilen Txapelketan dihardute Donostiako Gros Xake Taldearen egoitzan. Joan den astelehenean hasi ziren eibartarrak lehen eta lehen hiru txandak jokatu ostean Olabe zen liderra hiru partida irabazita (iaz Eibarren jokaturako txapelketan irabazle izan zen). Julen Garrok, bere aldetik 2 puntu zituen lehen hiru partiden ostean.

Astorianero Elbako alkateak **HAMAINA BERBA** Irratsaluan emanaz gero, egunero 12.30etan.

Zure kasa, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: elbar@herri-irratia.com


SMS bidex: Elbar [nahi duzun mezua]

5886 zenbakira, edo zuzenean telefonoz 943 82 06 44 zenbakira.

90.7 Fm

laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IÑIGO eta IKER Jauregibarriari (9 urte) urtarrillaren 5ian eta 11n urtiak beteko dozuez-eta. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, MAIALEN, 20xan urtia bete zenduan-eta. Muxu haundi bat amama, aitxixa eta famelixa guztiaren partez.

HILDAKOAK

- Juana Rodríguez Toledana. 90 urte. 2009-XII-18.
- Jaime Pérez Prieto. 92 urte. 2009-XII-21.
- Petra García Gómez. 81 urte. 2009-XII-23.
- Pablo Frontaura Olmos. 86 urte. 2009-XII-24.
- Valentina Pinacho Hernández. 85 urte. 2009-XII-24.
- Gabriel Maiztegi Arrizabalaga. 97 urte. 2009-XII-25.
- Angeles Astigarraga Aldabaldetrek. 83 urte. 2009-XII-25.
- Ildfonso Parmo Alvarez. 79 urte. 2009-XII-27.
- Vicente Balanzategi Axpe. 85 urte. 2009-XII-28.

JAIOTAKOAK

- Maia Baskaran Rodríguez. 2009-XII-7.
- Mara Zubizarreta Caballero. 2009-XII-15.
- Joane Ibáñez de Garaio García. 2009-XII-17.
- Nerea Calderón Díaz. 2009-XII-19.
- Olatz Calderón Díaz. 2009-XII-19.
- Martin Rodríguez Fernández. 2009-XII-20.
- Nora Llera Guenara. 2009-XII-21.
- Eider Azkoaga Muga. 2009-XII-22.

DENBORAPASAK

SUDOKUA

		6	8					
	1	5			3	8		
	3	2	5					4
								6
			2	6		4		
				3		7	1	2
	9	3	1	7				
	4	1		9		2	7	6
7		8			2			

4	7	8	6	1	4	1	5	2
6	8	0	1	5	7	0	2	7
8	0	1	2	7	5	4	0	8
2	0	0	0	5	7	8	1	4
0	0	4	0	1	8	2	1	0
5	1	2	0	1	2	6	8	2
7	4	0	0	5	1	0	0	0
1	0	0	4	0	8	7	0	0
0	8	0	7	0	8	5	4	1

AURREKOAREN EMATZA



MAPFRE

JUAN LUIS GARMENDIA

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

GARMENDIA INMOBILIARIA

PISUAK eta LOKALAK **salgai** eta **alokairuan**

San Juan 7, behea ☎ 943 203 413 Faxa: 943 200 324 -EIBAR-

Euskal Okela salmentarako harategi baimendua



Harategia-Urdaitegia

OBERENA

Bidebarrieta, 20
943 20 16 69

horoskopoa

ARIES

Modu ezin hobean amaituko duzu 2009a eta hobeto hasiko duzu 2010.a. Urte ederra izango da zuretzat, udaberria batez ere.

TAURUS

Gabonak oso zoriontsuak izango ez badira ere, 2010. urtea oparoa izango da zuretzat, bai arlo ekonomikoan, bai maitasun kontuetan.

GEMINI

Olentzerok ez badizu ezer ekarri, zerbaitengatik izango da. Ea datorren urtean hobeto portatzen zaren. Olentzero adi egongo da.

CANCER

Aldaketa handiak urte berrian. Lasai hasiko duzu 2010. urtea, berritasun handirik gabe, baina aurrera joan ahala egoerak buelta emango du.

LEO

Betikoa da. Betiko proposamenak urte berriari begira. Eta horietariko zenbat bete dituzu bizitza guztian? Ba tira, hobe ahoa itxita badaukazu.

VIRGO

Bizitza zeharo aldatuko dizun egoera bat biziko duzu 2010. urtean. Erabaki garrantzitsu bat hartu beharko duzu. Ondo pentsatu.

LIBRA

Ez duzu ahaztuko 2009a. Hainbeste gauza gertatu zaizkizu, hain politik denak! Ahaleginak egin datorren urtea berdina edo hobea izateko.

SCORPIUS

Olentzero joan da, baina trankil, opari politagoak jasoko dituzu egunerokoan datorren urtean. Astroak zure alde egongo dira-eta.

SAGITTARIUS

Ez duzu tristurarako momenturik izango 2010. urtean. Irtetzekotan pozez irtengo zaizkizu malkoak. Zortekoa zu!

CAPRICORNIUS

2010. urtea dagoeneko, zeinen azkar pasatzen den denbora! Bizitza ahalik eta hobeto aprobetxatu. Zoriontsua izaten saiatu zaitetz.

AQUARIUS

Urte berria dator, baina gauzak ez dira gehiegi aldatuko zure bizitzan. Denak berdin jarraitzeak, behintzat, lasaitasuna emango dizu.

PISCIS

Urte bidaiaria izango da zuretzat 2010.a. Inoiz imajinatu ez duzun lekuetan egongo zara eta momentu bereziak igaroko dituzu bertan.


Eguena 31

KIROL SARIAK

12.00.- Urteko kirolari onenei saria emateko ekitaldia. Portalean.

SAN SILBESTRE

16.15.- San Silbestre lasterketa. Aixolako urtegian.



Barixakua 1

URKORA IGOERA

10.00.- Urte Berriko igoera Urko mendira. 10.00etatik aurrera hamaiketakoan doan emango dute lxuan.



Zapatua 2

GAZTELEKUA

18.00.- Filme baten proiektzioa. Errota gaztelekuan.

Astelehena 4

IKASTEN

17.30.- Sendabelarren Foroaren saioa. Portalea.

Martitzena 5

ERREGIEN KABALGATA

17.30.- Ipurua kiroldegiko Dantza Garaikide taldeak, Ipurua Gimnasia Erritmika Taldeak eta Eibarko Balletak emanaldia eskainiko dute, Astelena frontoian.
18.30.- Erregeen kabalgata, Cielito Musika bandak lagunduta, Untzagatik abiatuta.



Eguaztena 6

GAZTELEKUA

18.00.- Merendola. Errota gaztelekuan.

Domeka 10

UMEENDAKO ZINEA


17.00.- "Monstruos contra alienígenas". Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.



Martitzena 12

IKASTEN

10.00.- Asier Errasti laburmetraien proiektzioa. Ingeniaritza Eskolako San Andres gelan (Hezkuntza Esparruan).
10.00.- "Oteiza", Mikel Camposen eskutik. EPAN (Isasi, 39).



Eguaztena 13

DISCOSANA

18.00.- Droga kontsumoarekin lotutako arriskuak murrizteko tailerra. Punto y Aparte diskotekan.



Eguena 14

KALEETAN KANTUZ

17.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

100% EUSKAL METEOROLOGIA	100% EUSKAL METEOROLOGIA	100% EUSKAL METEOROLOGIA	100% EUSKAL METEOROLOGIA	100% EUSKAL METEOROLOGIA

erakusketak

- Abenduaren 31ra arte

ARGAZKILARITZA DIGITALAren hastapen ikastaroan jardun dutenen argazki erakusketa. *Portalea tabernan eta Deporren.*

- Urtarrilaren 3ra arte

'Crisis olvidadas: vidas ignoradas'. **MUGARIK GABEKO MEDIKUEN** erakusketa ibiltaria. *Portalean.*

'Consecuencias', **ALBERTO REMENTERIA**ren margo erakusketa. *Portalean.*

JESUS BELAUSTEGIren zeramika erakusketa. *Untzagako Jubilatutxean.*

- Urtarrilaren 1etik 10era

Eibarko Klub Deportiboko **ARGAZKI TALDEAREN** erakusketa. *Topalekuan.*

- Urtarrilaren 8tik 31ra

Eibarko Klub Deportiboko **ARGAZKI TALDEAREN** erakusketa. *Portalean.*

- Urtarrilaren 9tik 24ra

DURANGALDEKO ARTISTEN Elkartearen erakusketa. *Portalean.*

- Urtarrilaren 31ra arte

GORKA VICENTEren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

AITOR AULESTIARTEren "Begiradak". *Depor tabernan.*

FREDERIC GARRIDOren "Nindas". *El Ambigú tabernan.*

farmaziak

30. eguaztena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

31. eguena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

DATORREN URTEKO ZERBITZUAK ORAINDIK ZEHAZTU GABE ZEUDEN ALE HAU AMAITZERAKOAN



lehiaketak

- 18. Amodiozko Gutunen lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilaren 7ra arte, Jardun Euskara Elkartearen (Errotalde jauregia z/g. 20.570 Bergara). Informazioa: www.jardun.net edo 943763661 telefono zenbakian.

- 'Aratosteak 2010 Eibarren' kartel lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea eta informazioa: Urtarrilaren 15era arte, Pegoran.

- Antzez Artikulu eta Gidoientzako Narruzko Zezen Sariak.

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilak 22ra arte, Hezkuntza Esparruan. Informazioa: eibarres@terra.es

- 3D Counter Strike.

Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 5era arte. Informazioa eta materiala: www.iesunibhi.com

- Industriagintzari buruzko IV. Argazki Lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 26a. Informazioa: Armeria Eskolan (aaa@armeriaeskola.com)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Mendaro osp.	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol. Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduo. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduo. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduo. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduo. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaiegunak: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Asteleheneretik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdi). Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 06.50-etik 21.50-era orduo. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdi. Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 07.55-etik 21.55-era orduo.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.13etatik 21.13etara orduo. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara orduo. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 06.13etatik 20.13etara orduo. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Lanegunak: 05.47etatik 20.47etara orduo.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 666-784526.
- Eibarren pisu txikia hartuko nuke alokairuan, San Andres ikastetxe inguruan. Tel. 628-789789.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 943-254063.
- Eibarren pisua alokagai, bariantetik gertu. 3 logela, egongela, sukalde-jangela eta komun bi. Eguzkitsua. Handia. Tel. 943-201294 edo 645-728317.

1.3. Konpartitzeko

- Neska batek pisua konpartituko luke neska arduratsuekin. Tel. 660-409539.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

- Lokala alokagai Eibarren. 180 m². Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.
- Legarre Behean marradun garajea alokagai. 75 euro hilero. Tel. 676-105492.
- Asua-Errekan (Urkizu inguruan) garaje alokagai. Handia eta trasteak gordezko lekuarekin. Tel. 630-391112.
- Elgetan lokal itxia alokagai. Autokarabanak gordetzeko. Lapurreta eta suteen aurkako sistemarekin. 116 euro hilean. Tel. 670-755644.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 687-114707.
- Mutil euskalduna eskaintzen da edozein lanerako. Karneta eta autoarekin. Tel. 669-208466.
- Klinika eta Pediatría laguntzailea nagusiak edo umeak zainduko litzuke. Tel. 660-323761.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 638-520765.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu edo garbiketa lanerako. Tel. 664-111706.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 630-404538.
- Neska eskaintzen da asteburuetan edo arratsaldetan kamarera moduan lan egiteko. Tel. 619-445652.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 649-008036.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 616-397348.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 648-505985.
- Emakume euskalduna eskaintzen da 09.30etatik 15.00etara umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 615-407948.
- Emakumea eskaintzen da edozein garbiketa lanerako. Tel. 653-010861.
- Mutila eskaintzen da banatzaile moduan, sukalde-laguntzaile gisa edo taillerrean lan egiteko. Tel. 638-344377.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanerako. Tel. 610-431118.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo goizez. Tel. 630-006792.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 943-171583.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 662-423898.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 663-655509.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Interna edo externa. Tel. 696-876482.
- Neska eskaintzen da etxeko lanetan edo tabernan jarduteko. Interna edo externa. Tel. 679-910991.
- Mutila eskaintzen da banatzaile moduan lan egiteko. Tel. 646-432980.
- Mutila eskaintzen da banatzaile moduan lan egiteko. Tel. 671-826858.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 648-603029.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 664-067280.
- Emakumea eskaintzen da 14.00etatik 18.30etara garbiketak egin edo nagusiak paseatzeko. Tel. 634-256471.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 679-866836.
- Emakumea eskaintzen da 17.00etatik goizeko 10.00ak arte nagusiak zaintzeko. Tel. 662-247584.
- Neska eskaintzen da orduka edo asteburuetan edozein lanerako. Tel. 669-152189.
- Neska eskaintzen da goizez edo asteburuetan nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetako gauetan nagusiak zaintzeko. Tel. 638-736539. Dori.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan kamarero moduan lan egiteko. Tel. 658-719676. Enrike.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 616-397348 edo 626-670510.
- Mutila eskaintzen da banatzaile edo sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 638-344377.

4.2. Langile bila

- Kamarero/o behar da Deporren asteburuetarako. Deitu 11.00etatik 23.00etara. Tel. 943-207044.
- Kamareroak behar dira Arraten asteburuetarako. Autoarekin. Tel. 677-638184.
- Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Tel. 943-531636.
- Ilepaintzailea behar da Eibarko ilepaindegi batean jornada erdirako. Tel. 943-207249. Sonia.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Koltxoia salgai (1,50 x 2,00). Tel. 628-573781.
- Bikiendako material ugari salgai: karroak, tronak, oheak... Oso egoera onean. Erropa oparituko da. Tel. 665-728504.
- Fotokopiadora (zuri-beltz eta koloretan) salgai. Tel. 943-127191.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Urrezko aliantza aurkitu dute Urkizun. Galdetu Juanito tabernan.



**OSTEO
PATIA**

MASAJEAK

OSTEOPATIA (buzurrekoa, estrukturala, erraietako) /
Kiromasajea / Teknika metamorfikoak /
Masaje terapeutikoa / Reflexologia (ordubete)



**KIRO
MASAJEA**



**REFLEXO
LOGIA**



Tratamendu lipo-erreduktorea

BERRIA

BONOA


5 saioekin

30 minutuko masajea
edo erreflexologia

OPARI

5 saio **150 euro** **30 euro** saio bat

BEGIBISTAKO EMAITZEKIN
LEHENENGO SAIOTIK



**AURPEGI
FOTOGAZ
TETZEA**

**GEL AZAZKALAK
LUZARORAKO
MANIKURA**

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

Zimurrak (Botox). Mantxak.
Barizeak-Couperosis.
Azido hialuronikoa.
Bitaminak.

Laser depilazioa

ezpainak	10 €
besapeak	50 €
izterondoak + besapeak	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterondoak	250 €
besoak	120 €
bizkarra	120 €


CAPI

%10eko deskontua
perfumeria eta kosmetikan

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00



UNIVERSITY of CAMBRIDGE ESOL Examinations

Authorised Centre ES 438 - Deba Durangaldea

MATRIKULAK:
Urtarrilaren 7tik 14ra arte

**AZTERKETAK
EIBARREN eta DURANGON**

MARTXOKO DEIALDIA

-AZTERKETA DATAK-

F.C.E.	AHOZKOA	Martxoak 6, larunbata
F.C.E.	IDATZIZKOA	Martxoak 13, larunbata
C.A.E.	AHOZKOA	Martxoak 6, larunbata
C.A.E.	IDATZIZKOA	Martxoak 6, larunbata
C.A.E.	AHOZKOA	Martxoak 6, larunbata
C.A.E.	IDATZIZKOA	Martxoak 6, larunbata

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:

<u>ARRASATE:</u>	Parlance	943 77 06 83
	Mondragon Lingua	943 71 20 55
<u>BERGARA:</u>	Espolon School of English	943 76 03 53
<u>EIBAR:</u>	Anglo-American	943 20 64 57
	Link Idiomas	943 20 39 59
<u>ERMUA:</u>	Akerlei	943 17 66 32
<u>ELGOIBAR:</u>	Kensington School of English	943 74 02 36
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44
<u>OÑATI:</u>	Mondragon Lingua	943 71 60 00
<u>DEBA:</u>	Akabi	943 19 16 79
<u>DURANGO:</u>	San Jose Maristak	94 681 00 58
<u>MENDARO:</u>	Akabi	943 75 50 55
<u>BERRIZ:</u>	Speak up	94 622 52 94
<u>ZUMAIA:</u>	Golden Gate	943 86 50 20
<u>MUTRIKU:</u>	Gogoz	943 60 43 58

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Iribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
klinika dental hertz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hertz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75